

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA

Iker 13

*Iñaki Gaminde,
Mendebalde alkarteko
kide-ordezkaria eta tesiaren
epaimahaiko idazkaria*

Eskerrik asko. Egun danori eta zorionak Juan Luiseri beharra argitaratu-ta ikusteagatik, hori lehenengo eta behin.

Nik labur-labur ze ia gauza handirik ez jata lotzean, ba azpimarratuko nituzke tesi honen, niri iritziz, alderik garrantzitsuenak zeintzuk izan diren.

Orduan, batetik, lehen egia esan tesi hau ez da sortzen berez, lehen egon dira intuizioak eta aspalditik, baina lehenengoz ematen jaku marko teoriko oso bat jardunbide didaktikorako eta hortan dago niri iritziz honen garrantzia. Marko teoriko honek baditu gainera hiru oinarri nagusi, batetik, Juan Luisek berak aipatu duen moduan, diziplina askotik etorriko ekarriak biltzen ditu, baina ez bilketa sorta bat, ez bada ze irazirik eta ondo josita. Bestetik, bada, datu inpirikotan oinarritutako esperientzia bat, hor dago inkesta pila bat, testak eta test horiek eman dituzten emaitzak aztertuta metodo zientifikoko batez eta azkenik, ez horregatik garrantzi gitxiengoena, esperientzia didaktiko luzea.

Orduan, hiru oinarri horietan funtsatuta ba marko teoriko sendo ematen zaigu euskararen irakaskuntzarako eta aportazio berri handi batekin eta da atxekitze ereduarena, ze ereduarena gauza zaharra zen gure artean, baina atxekitze ereduaren proposamena eta horrek dakarren guztia lehenengoz egin da.

Bigarren alderdi garrantzitsua da teoriatik praktikarako bidea ematen dela ezta eta orduan proposamen bat egiten da *curriculum* eredu bat euskalkia bera irakasteko danona dan euskara batuarekin batera. Tesia defendatu zanean, orain dela urte bi, ia ahaztuta egon gara, baina urte bi joan dira, ba ilungune batzuk ikusten ziren eta han tribunalean aipatu ziren, zorionez eta jardunbide eta tesiaren edo lanaren beraren ibilbideari esker, ilungune horietariko batzuk argituz doaz eta aipatuko ditut hiru: bata da marko teorikoak dakarren iraultza egiteko borondatea ete dagoen, borondatea eta prestakuntza irakasleontzarako, hori badoa aldatuz hor zehar; material egokia hau gauzatu ahal izateko

eta material batzuk sortu dira ikusmolde honetatik... eta hirugarrena, han gelditu zena, ilundegian izan zen ahozkoaren arazoa eta ahozkoaren arazoa nahiko barruan gauzatuz doa edo behintzat teorizatuz doa, nahiz eta praktikarako saltoa oraindik egin behar dan.

Hirugarrena eta azkena, nire ustez oso garrantzitsua dana, teoria eta praktika uztartzeko da testuaren beraren idazkera, inork ez du aipatu, baina nik lehenengoz etxeko probak ikusi dodaz goiengo maila baten txertatuta, baina ez txertatuta alabu edo txatal torpe baten moduan, ez bada ze, salbu eta trebe eta hori eskertzekoa da, ze hori da eredu bat, liburuaren idazkera.

Eta bueno hori nabarmenduta ez dekot besterik esateko. Eskerrik asko.